

KULTUR ANIZTASUNA



LA ASUNCIÓN IKASTETXEA

1. buletina

HONDAKINEN BERRERABILPENEAN AURRERA EGINEZ

Ikasturte honetan, lehenengo aldiz, Bioservice enpresak ikastetxeei zuzendutako berrerabilpena eta birziklapenaren aldeko programan parte hartuko dugu. Euskal Herriko ikastetxeetan hutsik dauden inprimagailuetako tinta-kartutxoak eta jadanik erabiltzen ez diren telefono mugikorrek biltzeko programa da. Beste motako hondakinekin nahastu aurretik, material hauen berrerabilpena bultzatzea da helburua. Ekimen hau ikastetxeko ikasleei, langileei eta familiei zabaldu zaie.

Informazio osagarria: <https://www.bioservice.es/es/cuento-bioservice.html>



PAPERAREN ETA PLASTIKOAREN BILKETA EGOKIARI ESKER, ONDORENGO BIRZIKLAPENA ERRAZTEN DUGU



Ikastetxeko geletan sortzen ditugun hondakinen artean papera izan ohi da gehien biltzen dena baina baita plastikoa ere (ikasleen hamaiketakoaren bilgarriak, irakasleek erabilitako plastikozko edalontziak, etab.). Gure ikastetxean hondakinen gaia ikasturte batetan baino gehiagotan landu izan dugunez, denon konpromisoa da sortzen ditugun hondakinak gaika sailkatzea eta horrela, hondakin mota ezberdinen ondorengo birziklapenean laguntzea. Lan hori aurrera eramateko asmoz, hilabete bakoitzean, DBH 3. eta 4. Kurtzoko ikasle-talde bat geletako eta tutoretzetako papera eta plastikoa jasotzeaz arduratzen da. Hurrengo pausoa, bildutakoa dagokion ontzietara eramatea da.

Prozesu hau astero egiten dute ikasleek. Eskerrik asko zuen inplikazioarengatik!

ESKOLAKO BARATZEAN ANIZTASUNA ETA KOLOREA!



Haur-hezkuntzako ikasleek baratza txiki bat mantentzen eta lantzen dute. Sasoiaren arabera, besteak beste, letxugak, tomateak, azenarioak eta azaloreak landatzen dituzte. Ekimen hau hasi zenetik, fruituen eta barazkien aniztasuna eta horien jatorria hobeto bereizteaz gain, ikasleak elikagaien garrantziaz jabetzen dira eta horiek gehiago errespetatzen ikasten dute. Era berean, elikaduraren munduan murgiltzen dira, etorkizunean erabaki arduratsuak hartzeko oinarriak sortuz.

Nola gozaten duten gure haurrek, marrubiak gorri-gorri daudenean, hauek jasotzen eta batez ere, jaten! Nam-ñam!